

PLE 22-JUN-22 (4/CP)

**HANDITZEA BIDEGORRIEN MANTENTZE-LAN,
SEGURTASUN ETA LOTURETARA BIDERATUTAKO
AURREKONTU-ALDAKETAREN –2022KO
EKAINAREN 2KO OSOKO BILKURAK ONETSIA–
KONTZEPTUA ARMADA ETORBIDEAN GERALEKU
AURRERATUAK GEHITUTA.**

PLE 22-JUN-22 (4/CP)

«IKUSIRIK Proiektu Estrategikoetako, Mugikortasuneko eta Jasangarritasuneko Alorrak egindako eta espedientean jasotako txostena, ERABAKITZEN DA:

1.- Aurrekontu-aldaketaren kontzeptua handitzea 40/13400/609000 partidan (Mugikortasuna, Erabilera publikoko azpiegiturak eta ondasunak), 108.000,00 euroko zenbatekoarekin, 2022ko ekainaren 2ko Osoko Bilkurak hartutako erabakiaren bidez onetsia, bidegorrien mantentze-lan, segurtasun eta loturetan erabiltzeko; honako hau gehitu da:

- Armada etorbideko bidegorrian geraleku aurreratuak egitea.

2.- Indarrean dagoen aurrekontuaren 4. oinarrian ezarritakoarekin bat, erabaki hau jendaurrean jartzea hamabost egun naturaleko epean, erabakia Iruñeko Udalaren iragarki-taulan argitaratu eta biharamunetik aitzina. Jendaurreko epean erreklamaziorik aurkezteak berekin ekarriko du Osoko Bilkurak berariaz egin behar izatea behin betiko onespena indarra hartzeko. Bestela, erabaki hau indarrean sartuko da jendaurreko epea amaitutakoan. Horrek guztiak ez dio eragiten 2022ko ekainaren 2ko Osoko Bilkurak onetsitako aurrekontu-aldaketak indarrean sartzeari.